

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

283/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 89. artikulua ildotik funtzionario-izaerari behin betiko baja sustatua emateko eskabidea ezetsi zitzaioneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko ekainaren 2ko ebazpenaren kontra 06535564E nortasun-agiriaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —283/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 5ean

Udal legelaria

JON KEPA ZARRABE GARCÍA